

G*i***DA** **PEDAGOGIKOA**

IRAKASLEENTZAKO
ORIENTABIDEAK ETA PRAKTIKAK

2019

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ERAIKIZ

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa




ETORKIZUNA
ERAIKIZ



G*i*DA
PEDAGOGIKOA

IRAKASLENTZAKO
ORIENTABIDEAK ETA PRAKTIKAK

2019



ETORKIZUNA ERAIKIZ



Jendarte digitalerako hezkuntza

Hezkuntzaren erronka ere bada personak etorkizuneko jendarte digitalerako prestatzea.



(e) Partehartzea

Gobernantza prozesuetan digitalki (e)partehartzeko gogotsu gaude.



Digitalizazioa

Digitalizazioa gure bizitzako arlo guztietara heldu da.



Guztionean parte hartzea bermatuko duen herritargo digital bat eraikitzeko mapa

AURKIBIDEA


1. HEZKUNTZATIK ETORKIZUNA ERAIKIZ
2. GIDA ZERGATIK
3. ZER DA GIDA
 - Ikasleentzat
 - Irakasleentzat
4. GIDAN BARNERATU AURREKO FUNTSEZKO KONTZEPTUAK
5. ADIBIDEAK ETA ARIKETA PRAKTIKOAK
 - Idatziz
 - Irudiz
 - Bideoz
6. GEHIAGO SAKONTZEKO BIDEAK



Mugikorraren sinbola ikusten duzun aldiro gidako atal horrek errealitate areagotua baliatzen duen bideo azalpen bat eskuragarri duela esan nahi du.

Hezkuntzatik etorkizuna eraikiz


Digitalizazioa gure bizitzako arlo guztietara heldu da. Harremanak izateko, komunikatzeko, esperimentatzeko... praktiken etengabeko eraldaketan gaude. Eskura ditugun kanal berriek sortu dituzten aukerez ari gara.



Gobernantza prozesuetan digitalki gogotsu **(e) parte hartzeko** oinarriak finkatzeko momentuan gaude. Guztion parte hartzea bermatuko duen jendarte digital bat eraikitzeko.



Hezkuntzaren erronka ere bada pertsonak etorkizuneko jendarte digitalerako prestatzea. Kanal berrien bitartez modu seguruan, elkar errespetatuz, ikuspegi kritikoz, eta sormenez komunikatzea.



GIDA ZERGATIK

ETORKIZUNA ERAIKIZ

Gipuzkoako Foru Aldundiak herritarrentzat egiten du lan, eta beraz jendartea modu globalean pentsatzeko unea da; jendartearekin batera etorkizuneko Gipuzkoa eraikitzeke garaia da.

Proposatzea eta entzutea delako politika. Aldeen arteko elkarrizketarik gabe, elkar aditu gabe, ez dago mugimendurik, ez eta aurrerabiderik ere.

Gipuzkoako Foru Aldundiak konpromisoa hartu zuen herritarrekin, gizartearen zerbitzura lan egingo zuela. Guretzat lidergoa ez da boterea eta agintea, herritarren zerbitzura egoteko gaitasuna baizik. Baina horretarako herritarren parte hartzea eskatu behar dugu. Pertsonen neurria egindako politika sustatu nahi badugu, pertsonen laguntza, ideiak eta indarra behar ditugu.

Horregatik, gure proiektu garrantzitsuenetako bat da gizartearengan konfiantza eta gogoia piztea, Gipuzkoaren proiektuarekin konprometitzea lortzeko. Partekatu, hitz egin, eztabaidatu; gutxiago hitz egin eta gehiago entzun.

Etorkizuna izango direnekin batera gaurtik etorkizuna eraikitzen hasteko unea da.

ZER DA GIDA (IKASLEENTZAT)

Komunikazio eraginkor digitala garatzeko tresna bat.
Adibide eta orientabideen bitartez idatziz, irudiz eta bideoz
GFArekin harreman bat garatzeko helduleku bat.

ZER DA GIDA (IRAKASLEENTZAT)

Hainbat konpetentzia digital ikasleekin lantzeko tresna bat.

Adibide, dinamika eta orientabideen bitartez idatziz, irudiz eta bideoz egoki komunikatzeko lanketa errazte aldera proposamen bat.

Digitalizazioa, (e)parte hartzea eta jendarte digitalerako hezkuntzan sakontzeko aukera bat.

GIDAN
BARNERATU
AURREKO
FUNTSEZKO
KONTZEPTUAK

1

GIZARTE DIGITALA

Gizarte digitala ekosistema konplexuez osatzen da, etengabe aldatzen da eta tresna digitalen ondorioz konfiguratzen da.

Digitalizazioak gizarteko hainbat arlotan eragiten du. Etengabeko prestakuntza eta hausnarketa ere badira gako gizarte digitalean.

2

HERRITAR DIGITAL AKTIBOAK

Alderdi ekonomikoan, sozialean, kulturean eta politikoan herritarren parte-hartze aktiboari egiten dio erreferentzia.

Partaidetza digitala izatea nahi bada, garrantzitsua da herritarrek dituzten aukerak ezagutzea eta parte hartzeko motibazioa eta trebetasunak izatea.

3

HERRITARREN PARTE HARTZE AKTIBOA

Herritarren partaidetza definitzen da norberaren komunitatean parte hartzean; komunitatearen bizi-kalitatea sustatzeko prozesu politiko zein ez politikoetan parte hartzean hain zuzen ere. Kezka publikoei erantzuteko egiten den borondatezko lanarekin elikatzen eta garatzen da parte hartze aktiboa.

4

(e)PARTE HARTZEA

Gobernuaren eta honen prozesuetan (zerbitzu administratiboetan, zerbitzuetan, politikak eta erabakiak hartzeko) parte hartzea bultzatzeko eta herritarren inplikazioa sustatzeko informazio eta komunikazio teknologiak erabiltzea da. (e)parte hartzeak bere barnean biltzen ditu teknologiak erabiliz aurrera eramán daitezken prozesu demokratiko guztiak e-bozka izan ezik. Parte hartze mota honek eskatzen du gardentasunez eta errespetuz jokatzeko.

5

KONPETENTZIA DIGITALA

Parte-hartze osoa lortzeko beharrezkoa den konstelazioaren parte da konpetentzia digitala. Konpetentzia honek bere gain hartzen ditu hurrengoak: informazio bilaketa eta kudeaketa arduratsua, informazioa partekatzeko estrategiak garatzea komunitateko parte izanez, mezu multimodalak ulertu eta sortzea, informazioaren iturriak sinesgarritasuna, fidagarritasuna eta kalitatea aztertzea, kanal berrien aurrean norberaren jarreraren inguruan hausnartzea erantzunkizun sozial eta etikoarekin.

6

HEZKUNTZA MEDIATIKOA

Mediarekin eta mediaren inguruan ikasi eta irakastearen prozesua da. Hau da, ikus kulturalan jasotzen ditugun inputak (Internet, sare sozialak, hedabideak, argazkilaritza, publizitatea, zinema, irratia, telebista eta argitalgintza) kritikotasunez kodifikatzeko eta deskodifikatzeko gaitasuna da.

Idatzizko ADIBIDEAK


Gidako ereduak

Motz eta argi: Ideia bakoitzarekin paragrafo bat osatuko dugu. Amaitzean bidaltzeko asmoa duguna irakurriko dugu. Ideia ona da mezua bidali aurretik gure lagun, tutore edo familiakideren bati mezua erakutsi eta ulermena frogatzea.

Emojiak: Gaizki ulertuak saihesteko eta aurrez aurreko komunikazioak duen gertutasun ukitua gehitzeko balio digute. Emoji bakoitzak bere esanahia du, ziurtatu ondo erabiltzen ditugula.

Errespetuz: Beti bete beharreko araua dugu hau. Agurra ere mezuaren zati da.

Kontaktuaren garrantzia: Mezuak eragina izan dezan, gurekin harremanetan jartzeko kontaktua argi eta garbi jaso beharko dugu.



TESTUINGURATZEA | Ariketaren helburua azaldu

Gero eta kexa gehiago jasotzen ditugu herrian falta diren baliabide eta aukeren inguruan. Horiei erantzuteko agente egokiena Gipuzkoako Foru Aldundia dela konturatu zara. Nola helaraziko diogu mezua?

EGOERA / DINAMIKA

Banaka herriak dituen hiru behar identifikatu (aukeran mugikorrean idatzi). Talde txikitik (2-3 pertsona) jarri eta bat aukeratu. Identifikatutako beharra definituko duten hiru hitz gako idatzi.

GIDAK BANATU



Zeintzuk izan behar dira mezua idaztean kontutan hartu beharreko ezaugarriak? Identifikatu ezaugarri horiek gidako idatzizko adibidean.



Gidako adibidea aztertu. Zeintzuk dira mezuaren lau zatiak?

Aurkezpena

Arazoaren testuinguratzea

Eskaera, proposamena edo galdera

Agurra



Taldeka mezua idatzi.



ADIBIDEAK

Irudizkoa

Gidako eredia

Irudi batek mila hitz baino gehiago esaten ditu. Azaldu zure mezua modu bisualean. Gogoratu argazkietan ere gure kontaktua eta oinarrizko informazioa txertatzea komeni dela.

#traolak zentzuz erabili. Mezua hobeto ulertzeko tresna diren bitartean, emojiak eta gifak baliabide egokiak dira. Gogoratu sare sozial irekietako irudiak publikoak direla.



TESTUINGURATZEA | Ariketaren helburua azaldu

EAEko beste herri batean bizi den lagun bati zure herria erakutsi nahi diozu. Zergatik zaude harro zure herriaz? Zer erakutsiko zenioke?

EGOERA / DINAMIKA

Banaka herriak dituen hiru indargune identifikatu (aukeran mugikorrean idatzi). Talde txikitan (2-3 pertsona) jarri eta bat aukeratu. Identifikatutako indargunea definituko duten hiru hitz gako idatzi.

GIDAK BANATU



Zeintzuk izan behar dira mezua sortzean kontuan hartu beharreko ezaugarriak? Identifikatu ezaugarri horiek gidako *irudiz* adibidean.



Gidako adibidea aztertu. Zeintzuk dira irudi baten bitartez komunikatzean kontutan hartu beharrekoak?

Azaldu zure mezua modu bisualean.

Emojiak eta gifak baliabide egokiak dira.

Kontuz! Sare sozial irekietako irudiak publikoak dira.

Gogoratu argazkietan ere gure kontaktua eta oinarrizko informazioa txertatzea komeni dela.



Taldeka komunikatzeko irudia sortu.



ADIBIDEAK

Bideoz edo audioz

Gidako ereduak


Laburra eta argia: Hasi zure burua aurkezten. Patxadaz hitz egin. Aurrez pentsatu azaldu nahi dituzun ideiak. Mezu laburrak argiagoak dira, saiatu asko jota minutu baten zure mezua laburbiltzen.

Aurrez aurreko komunikazioan bezala, hartzailearengan pentsatu eta zaindu zure mezuaren tonua (mezu atseginak hobeto ulertzen eta jasotzen dira).

Errespeta: Beti bete beharreko araua dugu hau. Agurra ere mezuaren zati da.

Kontaktuaren garrantzia: Mezuak eragina izan dezan, gurekin harremanetan jartzeko kontaktua argi eta garbi jaso beharko dugu.

Mezua bideo bitartez bidaltzen baduzu, hartu kontuan irudia mezuarekin bat etorri behar dela.



Kaixo Xune naiz, 17 urte ditut, eta interneten topatu dudan ideia bat zuekin partekatu nahiko nuke ea guk ere antzerako zerbait egin dezakegun.

Emakumeon berdintasuna lantzeko herri ezberdinetan espazio irekiak diseinatzen ari dira ikuspegi feministatik. Ea Gipuzkoan ere antzerako zerbait egin dezakegun. Ni laguntzeko prest. Eskerrik asko eta ondo segi!

TESTUINGURATZEA | Ariketaren helburua azaldu

Zure kezka nagusiak GFari helarazi nahi dizkiozu. Zerk mugitzen dizkizu barrenak? Zer aldatuko zenuke? Azaldu zure kezka bideo bidezko mezu batean.

EGOERA / DINAMIKA

Banaka zure hiru kezka izendatu (aukeran mugikorrean idatzi)
Talde txikitan (2-3 pertsona) jarri eta gehien errepikatu den kezka aukeratu.
Identifikatutako kezka definituko duten hiru hitz gako idatzi.

GIDAK BANATU



Zeintzuk izan behar dira bideo bat sortzean kontuan hartu beharreko ezaugarriak? Identifikatu ezaugarri horiek gidako *bideoz* adibidean.



Gidako adibidea azertu. Zeintzuk dira bideo baten bitartez komunikatzean kontutan hartu beharrekoak?

- Laburra eta argia.
- Errespetuz hitz egin.
- Kontaktua utzi.



Banaka adostutako kezka azaltzeko bideoa sortu. Hiru bideoak ikusi eta elkarrir hobekuntzak proposatu.



GEHIAGO SAKONTZEKO BIDEAK

Digitalizazioa

Chui, M.; Manyika, J.; Miremadi, M. (2016). **Where machines could replace humans—and where they can't (yet)**. Hemendik jasoa: <https://labur.eus/IRvjK>

Comisión Europea (2010). **Una agenda digital para Europa**. Comunicación de la Comisión al Parlamento Europeo, al Consejo, al Comité Económico y Social Europeo y al Comité de las Regiones. Bruselas: Comisión Europea. Hemendik jasoa: <https://labur.eus/1mHAO>

Comisión Europea (2014): **Agenda Digital para Europa**. Luxemburgo: Comisión Europea. Hemendik jasoa: <https://labur.eus/tM5FZ>

Davis, N. (2016). **What is the fourth industrial revolution?** Hemendik jasoa: <https://labur.eus/UhxxP>

Doménech, R.; García, J. R.; Montañez, M.; Neut, A. (2018). **¿Cuán vulnerable es el empleo en España a la revolución digital?** BBVA Research. Hemendik jasoa: <https://labur.eus/kCpO1>

Frey, B.C.; Osborne, M.A. (2013). **The future of employment: How susceptible are jobs to computerisation?** Oxford: University of Oxford. Hemendik jasoa: <https://labur.eus/1DvAq>

Loshkareva, E., Luksha, P., Ninenko, I., Smagin, I. & Sudakov, D. (2018). **Skills of the future**. How to thrive in the complex new world. Global Education Future - World Skills Russia - Future Skills.
Hemendik jasoa: <https://labur.eus/bbg3A>

Menéndez Velázquez, A. (2017). **Historia del futuro**. Tecnologías que cambiarán nuestras vidas. Oviedo: Ediciones Nobel.

Pew Research Center (2014). **Digital Life in 2025**. Hemendik jasoa: <https://labur.eus/7u1i5>

Pfeiffer, S. (2015). **Effects of Industry 4.0 on vocational education and training**. Hemendik jasoa: <https://goo.gl/F5L2rv>

Smith, A.; Anderson, J. (2014). **AI, Robotics, and the Future of Jobs**. Hemendik jasoa: <https://labur.eus/euipT>

WEF (2016). **The Future of Jobs**. Employment, Skills and Workforce Strategy for the Fourth Industrial Revolution. Ginebra: WEF. Hemendik jasoa: <https://labur.eus/T3GbQ>

GEHIAGO SAKONTZEKO BIDEAK

(e)Parte hartzea

Komito L (2005), "**e-Participation and Governance: Widening the net**" The Electronic Journal of e-Government Volume 3, Issue 1, pp 39-48 available online at www.ejeg.com

Macintosh A. (2008) **E-Democracy and E-Participation Research in Europe**. In: Chen H. et al. (eds) Digital Government. Integrated Series In Information Systems, vol 17. Springer, Boston, MA

Manta, M. eta Evans-Cowley, J. (2006). **E-Participation in Planning: An Analysis of Cities Adopting On-Line Citizen Participation Tools**, Environment and Planning C: Politics and Space, Vol 24, Issue 3.

Sæbø, I., Flak, L. eta Sein, M. (2011). **Understanding the dynamics in e-Participation initiatives: Looking through the genre and stakeholder lenses**. Government Information Quarterly, Volumen 28(3), pp- 416-425

Smith, S. eta Dalakiouridou, E. (2009). **Contextualising Public (e)Participation in the Governance of the European Union** European Journal of ePractice, 2 No 7

Soonhee, K. eta Lee, J. (2012): **E-Participation, Transparency, and Trust in Local Government**, Public Administration review, Volume72, Issue6, 819-828

Gizarte digitalerako hezkuntza

CISCO (2010). **La Sociedad del Aprendizaje**. Cisco Systems. Recuperado de: <https://labur.eus/ylqSO>

Comisión Europea (2013a): **Apertura de la educación: Docencia y aprendizaje innovadores para todos a través de nuevas tecnologías y recursos educativos abiertos**. Comunicación de la Comisión al Parlamento Europeo, al Consejo, al Comité Económico y Social Europeo y al Comité de las Regiones. Bruselas: Comisión Europea. Recuperado de: <https://labur.eus/TK8WF>

Hampson, M.; Patton, A.; Shanks, L. (2011). **10 ideas for 21st century education**. Londres: Innovation Unit. Recuperado de: <https://labur.eus/6AEaC>

Redecker, C. (aut.) (2017). **European Framework for the Digital Competences of Educators: DigCompEdu**. Punie, Y. (ed.) European Union. Luxembourg. Recuperado de: <https://labur.eus/HBeB4>

World Economic Forum (2015). **New Vision for Education**. Unlocking the Potential of Technology. Ginebra: WEF. Recuperado de: <https://labur.eus/HBeB4>



G i DA
PEDAGOGIKOA

IRAKASLEENTZAKO
ORIENTABIDEAK ETA PRAKTIKAK

2019

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ERAIKIZ